


# noaua



## "USURBILEK BEHAR ETA MEREZI ZUEN HALAKO TREN-GELTOKI MODERNO ETA IRISGARRI BAT"

Usurbilgo Udaleko, Eusko Jaurlaritzako eta Euskal Trenbide Sareko ordezkariak bildu ziren irekiera ekitaldian / 06-07 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

**Mundu bat batu zen aurreko igandean, sagardo eta festa egarriz / 11-14**




NOAUA

**Txirikordaren bi urteak komunitatean ospatu zituzten / 15-17**



NOAUA

**Hurbilago elkarrekin Uxue Trail Mendi Lasterketarekin bat egin du / 20**



NOAUA

**Zubietako Udaberri Festa ostegun honetan abiatuko da / 22**

# hartele



Antenak, LTD  
eta satellite  
Antenas, TDT  
y satélite



Atezain eta  
bideo atezainak  
Porteros y  
video porteros



Bideo-zaintza  
Videovigilancia

hartele@hartele.eus / 629 121 355



**USURBIL**  
OPTIKA

**4** Urteko  
Garantia

Interes  
Gabeko  
Finantzaketa


\*Banketxeak  
onartzean

Entzumen  
azterketa

**DOAN**

Entzun  
telebista

eta mugikorra  
zure audifonoetan



**943 37 02 69**

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)



# Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

## Hurbilagoko saltokietan, 250 kantinplora eskuragarri

Hurbilago elkarteak ere bat egingo du Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioarekin eta bere bezeroak ekainaren 14ko hitzorduan parte hartzera animatuko ditu. Horretarako, 250 oparirekin dator: 250 kantinplora. Uxue Trailen izen zein irudiarekin eta Hurbilagoren logoarekin batera serigrafiatuak daude. Horietako bat eskuratu dezakezue, Uxue Trail-en izena eman eta haren izen-emate agiriarekin, Hur-

bilagoko saltokiren batera jo eta bertan erosketaren bat egitearen truke. Kantinplora horiek agortu arte eskuratzeko modua izango duzue. Gogoan izan, lasterketarako izena kronoak.com atarian eman dezakezue. Datorren asteko aldizkarian proba honi buruzko xehetasunak eskainiko ditugu. Korrika nahiz paseoa eginez edota dortsal solidarioa eskuratuta parte hartu ahalko duzue.



Hurbilago elkarteak Uxue Trail mendi lasterkerarekin bat egin du.

### Garbigune mugikorra, Mikel Laboa plazan

Usurbilgo Udalak Kalezartik Mikel Laboa plazara lekuz aldatuko du maiatzaren 28an garbigune mugikorra. Bertan izango dute ekainaren 4an Aginagara lekuz aldatu arte.

Errefusaren hurrengo bilketa eguna astebete barru izango da, ekainaren 7an hain zuzen.

### Hurrengo ibilaldi osasuntsua, ekainaren 2an

Astearteroko hurrengo ibilaldi osasuntsua ekainaren 2an egingo da herri erdigunean barrena. "Hastapen eskolara bisita eta eskertza" iragarri dute. 10:30ean abiatuko da frontoitik. Gogoan izan, doan eta aurrez izena eman beharrik gabe parte har daiteke ibilaldira.

### Buztinzulokoen lanak Sutegin ikusgai

Buztinzulo elkarteak urtean zehar eginiko sorkuntza lanak ikusgai jarriko dituzte datorren astean zehar.

Zeramika taldeak Atxegaldeko plazan du egoitza baina ekainaren 1etik 7ra, Sutegiko erakusketa aretoan ikus ahal izango ditugu azken urtean egindako artelanak.

### Etumeta Literatura lehiaketaren sari banaketa

Ekainaren 3an izango da, arratsaldeko 18:00etan Txiribogan. "Bertan 4. edizioaren irabazlea zein den jakingo da. Bi aipamen ere izango dira, eta horien izenak ere bertan eza gutuko dira. Parte hartzaile guztiak, noski, gonbidatuta daude bertara, baita gainerako herritarrak ere".



**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Kudeatzailea:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio Batzardea:**  
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzalea:**  
Iban Maribalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 3.050 ale.  
**Inprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

## Zeruak eta lurrak (19)

**M**adrileko palazio eder bateraino ailegatu zen Saroe jauregiko mamuaren zurrumurrua. Katalina markesak segituan egin zuen maleta, gogoz kontra izanda ere, Usurbila itzultzeko. Aitaren heriotzatik ez zuen herria zapaldu, eta haren asmoetan ez zen itzultzeko asmorik ere. Egoerak, ordea, beste erremediorik gabe utzi zuen, eta markesari zegozkion gradu guztiakin, iparralderako bidean jarri zen.

Bost urtetik gora igaro ziren historiako orri beltz haietatik. Herrian inork hitz egiten zuen horren inguruan. Ahaztu nahi zuten guztiak, minak han non-bait zirauen arren. Zurrumurruren kontuak ez zuen onik ekarri, egia esan. Amesgaiztoak eragiteko modukoa zen. Markes zaharrak ez zuen gupidarik izan inorekin, eta agian, zenkeria haregatik, heriotzak ere ez zuen gupidarik izan harekin. San Jose egunez aita babesle eta justuaren jantzipean agertutako hura jada ez zen berriz itzuliko. Inork ez zuen nahi herrian. Eta Katalina itzuliko zela zabaldu zenean, ezin negona ere halaxe zabaldu zen.

Esan nizun ez zela ideia ona, kexatu zitzaion zerbitzaria Helenari. Baina Helenak jada ez zituen hemezortzi urte, jada ez zen inozentziaren irudia. Hark bakarrik zekien non ibili zen urte haietan, zer egin zuen, eta ilunpean, erdi ezkutuana atea jo zuenean, zerbitzariak ezin zuen sinetsi. He-

rriko gizon zahar bat zen, familiarik zetorkion Saroko zerbitzari izatea. Gizon isila, menekoa, halaxe gustatzen zitzaian markesei. Halakoxeak gustatzen zitzaizkien denak.

Egunez, liburu zaharrak irakurri ohi zituen lasai-lasai. Gramofono bat ere bazeukaten jauregian, bainasoinuateratzea ez zen asmoa. Nazka-nazka egindazegoen, ordea, lau hormen artean, eta behin atera zen kalera. Inork ez zuen ezagutuko, baina holako herri txiki batean, ezin oharkabean ibili. Aurpegi ezezagun bat are nabarmenagoa zen aurpegi ezagun baten aldean. Jauregiko garbitzailea zela esan zion galdetu zion lehenari. Murturra okertu zuen emakumeak, baina ezer gutxi aterako zion neskari. Saroko garbitzaile gaztearen kontua azkar asko zabaldu zen Usurbilen, baina Helenak lasaitasuna izan zuen egun batzuetan lasaiago ibiltzeko.

Iritsi zen Katalina markesa Usurbila. Aitaren azken etorrerako ongi etorriaren aztarnarik ez zegoen. Alkatea, zinegotziren bat, bi enpresa gizon eta apaiza ziren elkartuak Saroko atarian. Jakin-minez edo inertziak, beste bospasei gizaseme. Jarrera hotzez eta ezinegon aurpegiz jaitsi zen autotik. Gogo txarrez konplitu zituen aitarengandik ikasitako erreberentzia eta protokoloak. Azkar bukatu nahi izan zuen, eta jauregira sartu. Gizon haiek, ordea, hotsasun hain ikusgarri hura goxatu asmo zuten. Erabat gogaitu zenean, nekea

argudiatuta sartu zen barrura, hitz egiteko kontuak beste uneren batean hitz egingo zituzten. Katalinak ez zeukan horretarako interesik, baina, eta ahal zituen guztiak egiten saiatuko zen. Usurbil ez zitzaion erakargarria aitari bezala.

Jauregira sartu orduko eskatu zuen zerbitzariaren presentzia. Zer gertatzen zen jakin nahi zuen, eta ez zuen aitzakiarik edota bestelako gezurrik onartuko. Gizon isil hura lurra begirik kendu gabe zegoen. Bi ahizpak erabat ziren ezberdinak, eta Katalina behetik gora ikusi zuen hartan, haren aitaren gaztetako irudia etorri zitzaion gogora. Torturatzeko gai imajinatzen zuen emakumea, modurik bortitz zein krudelenean gainera. Pare pare jarri zitzaion markesa, begietan mespretxua eta amorrua nabari zitzaizkion, eta gizonaren isiltasunak gogaituta, kolkotik heldu eta astindu zuen.

Zein da formarik egokiena zuri zuzentzeko, Katalina?, galdetu zion Helenak salako atearen ertzetik.

**"IRITSI ZEN  
MARKESA  
USURBILA. AITAREN  
AZKEN ETORRERAKO  
ONGI ETORRIAREN  
AZTARNARIK EZ  
ZEGOEN"**

## Liburutegiko datozen ekintzak

Ikasturteko azken saioak iragarri ditu Usurbilgo udal liburutegiak.

### Maiatzak 30, larunbata

- 11:30 Ana Merinok biderturiko idazketa tailerra (gaztelaniaz).
- Iraupena: ordu eta erdi.

### Ekainak 1, astelehena

- 16:00 "Sormena partekatuz", Usurbilgo irakurle gazteen topaketa Yolanda Arrietarekin. "Urtean zehar gazte (txo) en solasaldietan parte hartzen duten kideen topaketa; plana tentagarri iruditzen zaion edonori irekia".
- Iraupena: ordubete inguru.

### Ekainak 2, asteartea

- 18:30 Elaine Agirrek biderturiko solasaldia Karmele Mitxelenaen "Zoriona, edo antzeko zerbaite" liburuaren bueltan. "Sutegi Liburutegian jada eskuragarri daude aipatu liburuaren hainbat ale, saioan parte hartzeko liburua alde aurretik irakurtzea komeni baita".

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

## Zirkuola zirku tailerrerako izen-ematea

Datozen Kalezarko jaien baitan, ekainaren 20an, 11:00-13:00 artean, Zirkuola zirku-tailerra antolatu du guraso taldeak. Parte hartzeko, ordea, aurrez eman beharko da izena usurbilkultura.eus plataforman.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA  
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak  
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**TXAPELDUN**  
ARDANGELA  
  
PLATERAK  
OGITARTEKOAK  
RAZIOAK  
ARROZAK  
OILASKO ERREA  
Muna Iurra 2, 943 49 88 83

# Ikastola Eguna, ate joka

Ekainaren 6an ospatuko du Udarregiren komunitateak bere Ikastola Eguna. Jolasak, emanaldiak edota bazkaria antolatuko dute frontoian 500 lagunentzat.

Ikastola Eguneko otordurako txartelak hilaren 29a baino lehen eskuratu beharko dira, ikastolako idazkaritzan, 8:00-13:00 artean edota hilaren 29an bertan, 16:30-17:00 artean Agerialdeko jolastokian.



Ekitaldi ugari iragarri dituzte.

## Ekainak 5-12

Haur Eskolako en erakusketa.

## Ekainak 6, larunbata

### Udarregi Ikastolaren Eguna

- 9:45 LH1-2-3 jolasak Ikastolan.
- 11:00-12:00 DBHko ikasleen erakusketa laborategian.
- 11:00 LH4-5-6 jolasak Ikastolan.
- 12:15 DBHko ikasleen jolasak Ikastolan.
- 12:30 HHko musika saioa (Mikel Laboan. Txarra egingo balu Ikastolako frontoian).

- 14:00 Bazkaria frontoian. -Ikasleentzat: makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura. Prezioa: 11 euro. -Helduentzat: entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ ardoa/ ura, kafea eta pattarra. Prezioa: 17 euro.
- 15:30 Kantaldia. LH6ko ikasleak.
- 16:30-18:45 Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.
- Antolatzailea: Udarregi, Hitz Aho.

## Matrikulazio garaia Zumarte Musika Eskolan

Maiatzaren 29ra arte matrikulatu ahalko da 2026-27 ikasturterako Zumarte Musika Eskolan; telematikoki zumarte.eus bidez edota presentzialki, hilaren 28an, 10:00-12:30 artean eta 18:00-19:00 artean, musika eskolaren egoitzaren bulegoan.

Albokan trebatzeko nahiz 0-3 adin tarteari zuzenduriko musika eskaintzan izen-emateko aukera izango da estreinakoz, orain arteko gainerako instrumentu ikasketetan (biolina, eskusoinua, flauta, gitarra, kantu teknika, klarineta, organoa, panderoa, perkusioa, pianoa, saxofoia, trikitixa, tronpeta, tronboia eta txistua) murgiltzearekin batera. 4-7 urte artekoek zuzenduriko Musika Txokoa, musika mintzaira, abesbatza eta talde instrumentalak ere aukeran eskainiko ditu Zumartek.

## Ekintza zikloa, Aginagako guraso elkartearen eskutik

Aginagako San Praixku guraso elkarteak ekintza zikloa antolatuko du ekainaren 1etik 19ra. Arratsaldeko 15:00etan hasi eta 16:15ak arte luzatuko dira:

### Astelehen eta asteazkenetan:

- Eskupilota HH5etik gorako haurrentzat. Prezioa, haur bakoitzeko: 30 euro.

### Asteartean:

- Yoga HH4tik gorako haurrentzat. Prezioa: 20 euro.

### Ekainak 11, 18, ostegunak:

- Orientazio erronkak LH 1-6 artekoentzat. Prezioa, haur bakoitzeko: 25 euro.

### Izen-ematea:

639 902 952.

### Antolatzailea:

Aginagako San Praixku guraso elkartea.

## 'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

### Aginagako Atxuak

Atxua zelako hura ardozale amorratua omen genuen. Behin, tabernan zegoela, tabernariak:  
-Edan ezak ura noizbait motel, edo itotzeko beldural haiz?


-Atxuak: Itotzekoa? Itoztzekotan, ardotan nahia-go.

### "Historia Sagrada" ikasiz

Hamabi urteren bueltan egin ohi zen komunio handia prestatzen ari dira.

-Apaizak: Ea! Nork daker gertatu zen Torre Ba-belekoan?

-Inaxi Aranburuk, Txiki-Erdikoak, behatza altxatuz: Mingaina moztu eta denak frantsesez eta ingelesez hasi zirela..



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Etxealdiako zubi berriak eta tren-geltoki berriak Santuenea, Atallu eta herri erdigunea modu seguru batean lotu dituzte.

# "Herritarren bizi-kalitatea hobetuko da"

Maiatzaren 23an zabaldu zuten Usurbilgo tren-geltoki berria. Inaugurazioa ordea, bezperan egin zen. Usurbilgo Udaleko, Eusko Jaurlaritzako nahiz Euskal Trenbide Sareko (ETS) ordezkariak bildu ziren irekiera ekitaldian.

Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren Sailak inaugurazio ekitaldian jakinarazi zuen moduan, "kabal-kadan, hau da, zubibide baten gainean, dagoen eraikinak oinplano angeluzuzena eta 231 metro karratuko azalera eraikia ditu. Sarbide nagusia ekialdeko fatxadan dago, Usurbilgo hirigunearekin zuzenean lotzen den oinezkoen pasabidearen maila berean, bertatik sartzen baita erabiltzaile kopuru handiena. Pasabide hori 20 metro da luze, eta igarotze libreko zabalera 3 metrokoa da".

Etxealdiako zubi berrieta eta tren-geltoki berria lotunea izango da aurrerantzean Santuenea, Atallu eta herri erdigunearen artean. Industrialera heltzeko pasabidea izango da baita, N634 errepide ertzeko autobus geltokira ere.

Atari nagusian txartelak saltzeko makinak eta geltokiko buruaren gela daude. "Balioztatze lerroa igarota bigarren mailako ataria dago, eta handik alboko bi nasetara sartu ahal izango da, bi eskailera finkoren eta bi igogailuren bidez", Susana Garcia Chueca Mugikortasun Jasangarria saileko sailburuak azaldu moduan. "Kanpoko egituraketa, atondoari argi naturala ematen dioten leiho handiz zula-

tutako eta material erresistente, funtzional, antibandaliko eta mantentzeko errazez estalitako bolumen trinkoa da".

**"Trenbidea berrantolatuta egin da"** Trenbideari dagokionez, "trenbideen zabalgunea berrantolatuta egin da, bi trenbide nagusien desbideratzeen arteko 240 metroko luzera erabilgarriarekin, etorkizuneko merkantziatarako gaituta, bai eta amaierako topea duen hiru-

**"ERAIKUNTZAK ONURA HANDIAK EKARRIKO DIZKIE ERABILTZAILEEI ETA USURBILGO UDALERRIARI"**

SUSANA GARCIA CHUECA, SAILBURUA

**"OSO ONDO INTEGRATU DIRA ZUBIA, KALEAREN URBANIZAZIOA ETA TREN-GELTOKIKO SARBIDEA"**

AGURTZANE SOLABERRIETA, ALKATEA

garren trenbide bat ere. Geltokiak 80 metroko luzera erabilgarria eta 3,5 metroko guxtieneko zabalera duten albo bi nasa ditu, eta horietan 20 metroko markesina bana daude".

Katigamendua berri dute, gainera, "modernoagoa eta trenbideko trafikoa kudeatzeko eta babesteko teknologia berrira (ERTMS izeneko Europako estandarera) egokitzeko gaitasunarekin. Sistema horrekabiadura gainbegiratzen du eta, behar izanez gero, tren geldiarazten du, eta hori lagungarria da, zerbait gertatuz gero, zirkulazioak erantzuteko gaitasun handiagoa izan dezan".

## "Usurbilek merezi zuen"

Susana Garcia Chueca sailburuaren ondoren, Agurtzane Solaberrieta alkateak hartu zuen hitza. Egun garrantzitsu eta pozgarritzat jo zuen maiatzaren 21eko. "Usurbilek behar eta merezi zuen halako garraio azpiegitura eta tren-geltoki moderno eta batez ere irisgarri bat izatea". Inbertsio estrategikotzat jo zuen, izan ere, "alde batetik, tren garraioaren eskaintza indartu egiten duela, tren-geltokia herrigunearantz gerturatzen dugulako modu irisgarri batean. Bestalde, udalak honantz datorren San Esteban kalea guztiz urbanizatu egin du. Lehen autoak nagusi ziren espazio batean izugarritzko eraldaketa egin dugu eta horrekin, esango nuke, gainera, tren-geltokirako konexioa goxatu egin duela, hobetu egin duela eta kalitatezko espazio publikoa geratu dela, tren-geltokiaren osagarri izan daitekeen zubiaren sarreratxo horretan sortzen den plaza-txoaren bidez". Ondorioz, "oso ondo integratu da dena, kalearen urbanizazioa, zubia eta tren-geltokirako sarbidea".

## "Zaintzaz ari garenean ere hirigintzaz aritu behar gara"

Horregatik hain zuzen, ETS eskertu zuen, "San Esteban

kalea urbanizatzeko Udalaren proiektua eta tren-geltokiaren proiektua bateragarri egiteko saiakeragatik. Elkarlana nagusitzen denean, emaitzak begi-bistakoak dira eta kasu honetan, bi erakundeen arteko elkarlana egon da eta onura baino ez digu ekarri honek".

Alkatearen esanetan, irisgarritasunean soilik ez, zonaldeko segurtasunean nabarmen hobetu da; orain arteko trenbideko pasabide arriskutsua ezabatua geratu baita.

Usurbil herri zaintzailea izateko jorratzen ari den prozesuaren testuinguruan ere kokatu zuten Usurbilgo alkateak trenbide berriaren inguruko lanak. "Urteak daramatzagu Usurbil herri zaintzaile bat izateko helburuarekin. Zaintza ari garenean ere hirigintzaz aritu behar gara" eta horrek herritarren autonomia mailan duen eraginaz. Honenbestez, bereziki "Santue-neko bizilagunentzat haien eguneroko joan-etorrietarako igogailu horiek oso garrantzitsuak dira".

**"Garaiotara egokitua, modernoa eta eraginkorra"**

Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren arloko sailburu Susana Garcia Chuecaren esanetan, "Euskotrenen erabiltzaileei hobeto erantzuteaz gain, haren eraikuntzak onura handiak ekarriko dizkio udalerrinari. Eredu honetan, integrazio urbanistikoa hobetzen laguntzen du, hirigunera zuzenean lotzen duen oinezkoentzako pasabide bati esker. Geltoki berria hirigunetik gertuago dago eta, gainera, hiru trenbide pasagune ezabatzea ekarri du. Gainera, industrialderako sarbideak erraztuko ditu, hau da, segurtasunean, irisgarritasunean, erosotasunean eta eraginkortasunean irabazten da". Ondorioz, herritarren bizi-kalitatea hobetuko da, Susana Garcia Chuecaren esanetan.



"Tren-geltokia herrigunerantz gerturatzea lortu dugu, modu irisgarri batean".

Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Sailaren hitzetan, egin den ahalegina trenbide-tik harago doa. "Hiri berronratze garrantzitsua dakar berarekin; kasu honetan, 4.000 metro karratu gehiagoko azalera hartzen du eta horietatik 2.000 baino gehiago lorategi eremuak dira". Horrekin batera, iragarri zuenez, "Victor Goikoetxearen eskuhartze artistikoa izango dugu, espazio hau balioan jarriko duen obra bat. Laster hasiko da gauzatzen".

Zehaztu zuenez, "esku-hartzearen osagarri, ingurunea urbanizatu eta ingurumenaren aldetik integratu egin da, bideak eraberrituz (1.100 m2 bide + 900 m2 biribilgune) eta lorategiak jarritz (2.275 m2), landareztatuz, N-634 errepideko autobus geltokia urbanizatuz eta LED argiztapen berria instalatuz, argi maila egokiak eta segurtasun pertzepzio hobea bermatzeko".

**Aginagako lanak, aurrerabidean**  
Gipuzkoako trenbide sarearen hobekuntzaren baitan kokatu zuten Garcia Chuecak tren-geltoki berri honen irekiera. "2026a urte handia izango da mugikortasunarentzat". Aginagan ere lanean dihardute,

tunel berriko lanetan. "Obra horretan, funtsean, 1.329 metro luze izango den tunel bat eraikiko da, trenbide bikoitzean, egungo ibilbidea laburtzeko eta Zarautz eta Donostia arteko maiztasunak bikoizteko. Lanak egiteko beharrezkoak izan diren Txokoaldeko zubia handitzeko lanak amaitu dira, Donostia aldeko tuneleko ahokadurako sarbideak egokitzeko lanetan aurrera egiten ari den bitartean".

Lanoi esker, "1.500 metro inguru murriztuko da ibilbidea, eta Aia-Orioko eta Usurbilgo geltokien arteko bidaia denbora 2 minutu murriztuko du. Tunel osoan trenbidea bikoiztu izanak, bidaiarien eta salgaien unitateak gurutzatzeko aukera emango du. Baldintza horiekin trenbidearen zerbitzu-ahalmena handituko da, eta, beraz, gaur egun 30 mi-

**"AGINAGAKO TUNELARI ESKER TRENBIDEAREN ZERBITZU-AHALMENA HANDITUKO DA"**

SUSANA GARCIA CHUECA, SAILBURUA

nutuz behingoak diren zirkulazioak 15 minutuz behingoak izatera igaroko dira".



Inbertsio handia izan da.

**Agurtzane Solaberrieta: "Bazegoen zor bat gure herriarekin"**

Urte hasierarako zegoen iragarria irekiera, atzeratu dela zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak inaugurazio ekitaldian, baina emandako hitza bete dela. "Inguruko herrietan egin dira inbertsioak, gure herrian tokatzen zen. Bazegoen zor bat gure herriarekin eta zor hori kitatu dela ulertzen dut", adierazi zuen alkateak geltoki barruan eginiko ekitaldian. Eskerrak helarazi zizkien Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren Sailari, "inbertsio hau gure herrian egiteagatik". ETS-ren arduradunei ere helarazi nahi izan zizkien esker hitzak. "Arduradun teknikoaren profesionaltasuna nabarmendu nahi dut, bazituelako bere zailtasunak, obrak asko gaez egin dira, horrek sortzen ditu zaratak, eguneroko joan-etorrietan trabak eta abar".



50. urtemuga festa elkarrekin antolatu dute Lanbide Eskolak, Herri Batzarrak eta Zubietako jai batzordeak.

# "Edonor dago gonbidatua festara"

Zubietako Lanbide Eskolak larunbatean jaiegun batekin ospatuko ditu betetako 50 urteak. Egungo nahiz iraganeko kideak gonbidatu nahi dituzte bereziki, baina baita herritar oro ere, Herri Batzarrarekin eta jai batzordearekin lankidetzan antolaturiko ekintzetan parte hartzera.

## Zer osagai izango ditu 50. urtemuga jaialdiak?

**Amaiur Berra:** Goizeko 10:00etan hasiko gara eskolan ekintza ezberdinak egiten. Eskola txikikoekin eginiko lanketatik proposatu zituzten jolasak guk antolatzea. Horrekin sortu dugu ginkana moduko bat. Helduxeagoentzako herri kirol lasaiak egingo dira; iltzeak sartzea, toka... behealdeko aparkalekuan. Gainerakoan, eskolan langileak izango dira zikloak eta horietan egiten diren proiektu ezberdinak aurkezten. Nahi duen oro bertaratu eta bertako proiektuak ezagutu ditzake. Eguerdian, 50 urte hauen inguruko bideotxo bat proiektatuko da. Sorpresak egongo dira. Gero, nahiko genuke, musikaz gidatua frontoi alde-ra joan, bertan bazkaria egin-

go dugu. Arratsaldea girotzeko kontzertuak izango ditugu. Eskolaren komunitatea elkartzea da gure asmoa, baina ez da zertan eskolarekin harremana izan behar, egun horretan parte hartzeko. Edonor dago gonbidatua.

## Musika taldeek Zubietarekin, eskolarekin loturik badute?

**A.B.:** Kita del pare txarangako kide bat eskolako ikasle ohia da, Txilipipar taldeko kide bat

**"NAHI DUEN ORO BERTARATU ETA ESKOLA ETA BERTAKO PROIEKTUAK EZAGUTU DITZAKE"**

eskolako langile baten bidez ezagutu genuen, dja ere zubietarra da. Naturalki sortutako lotura bat da.

**Aitor Zabaleta:** Bi zubietar jarriko dira dj lanetan. Festa Zubietako eskolako izanda, zer hobeto hala izatea. Arratsalde polita biziko dugu.

**Jaialdia Lanbide Eskolaren, Herri Batzarraren eta jai batzordearen arteko elkarlanaren emaitza izango da.**

**"ESKOLA HONEK HERRIAN ERAGINA DAUKA. HERRITAR ASKO PASA DIRA BERTATIK"**

**Jon Andoni Arroyo:** Zubietako Herri Batzarrera etorri ziren eskolatik 50. urtemuga ospatzeko ideiarekin. Ez egun honetarako bakarrik, hileroko zer-bait egin nahi zuten. Gure aldetik prestasun osoa egon da. Eredu izan da eskola Lanbide Heziketan. Orain, urtemugaren harira, gainera, Zubietaren izena jarri izana eta herriaren izena hemendik kanpo, haratago eramate hori hezkuntza mailan ere nabarmentzekoa da. Eskertzekoa da baita, gure aldetik urtean zehar eskaintako "Akelarre" dokumentalaren proiektziarako eskolak bere areto nagusia utzi izana.

## Ikastetxea hemen kokatu zenetik egin dio eskolak Zubietari keinu argia?

**A.B.:** Azkenean, Zubietan herrian gaude eta Zubietako eskola gisa ezagutzen gintuzten lehendik ere. Eskolari Zubietako izena jartzea, 50. urtemugarekin lotutako ekintza bat izan da. Izan ere, eskola honek herrian eragina badauka, herritar asko pasa dira eskolatik. Herrian eragina dugu mugitzen dugun jende kopuruarengatik eta egiten ditugun proiektuengatik. Horregatik, ezinbestekoa da eskolak lotura izatea herriko mugimendu ezberdinekin eta noski, elkar laguntzea eta proiektuak elkarrekin sortzea, beti guztion iritzia eta nahiak errespetatuz.

## Zer du ospatzeko Zubietako Lanbide Eskolak bere 50. urtemugan?

**J.A.A.:** Hezkuntza mailan izan duen ibilbidea. Beti eskola ospetsua izan da, punta-puntakoa. Nire garaian ere hala zen.

## Eskolan ikasitakoa zara?

**J.A.A.:** Elektrizitatea eta automatizazioa ikasten hasi nintzen 1984ko irailean.

## Nola oroitzen duzu orduko ikastetxea?

**J.A.A.:** Oraingoa baino txikiagoa. Garai ona izan zen. Guk

ere hazkuntza ezagutu genuen, eraikuntza berri bat sortu zuten. Artean, eskola berria zen. **A.B.:** 1975ean hasi zen Lanbide Eskola bere jardunean Aginagako parrokiako lokaletan eta inguruetako enpresek utzitako materialekin. Auzolanean sortutako proiektu bat izan zen. 1978an eraiki ziren Zubietako lehen eraikinak. Urte hartan hasi ziren hemen jardunean. Egun, bihurtu da eskola batean, eraikin askoan. 500 ikasle mugitzen dira goizeko zikloetan eta gutxi gorabehera ia 500 ere arratsaldeko ikastaroetan. Ikasle kopurua handitu da, ziklo eskaintzarekin batera. Hazten jarraitzen du. Izan ere, inguruko sektoreen eta industriaren beharretara moldatu behar gara uneoro. Orduan, hazkuntzak jarraituko du.

**Aitor, zu ere Lanbide Eskolan ikasten zbiltza.**

**A.Z.:** Lehen urtean ari naiz, administrazio ikasketetan. Gustura nago. Administrazio ikasketak egin nahi nituen. Horretarako aukera etxe alboan izanda, ez nuen zalantzarik izan. Uste nuena baino handiagoa iruditu zitzaidan, askoz jende gehiagorekin. Izan ere, gurasoekin hauteskunde egunetan bozkatzera etortzean ez zirudien hain handia. Politia iruditzen zait Zubietak halako hezkuntza maila duen ikastetxea izatea.

**Nazioartean erreferentziazko ikastetxea da.**

**A.B.:** Eskola hau aitzindaria izan da proiektu ezberdin askotan eta nazioartekoetan ere indar handia egin da urte askoz. Egia esan, mugikortasun proiektu garrantzitsuak ditugu. Baditugu erdi zein goi mailako zikloetan, lehen urtetik elkar trukeak, bigarren mailan ere Erasmus programarekin ikasleak asko mugitzen dira. Ikasleei horrelako proiektuetan parte hartzeak ematen die aukera ikusteko Europako beste herrialdeetan



Ikastetxean eta Zubietako plazan ospatuko da larunbateko Lanbide Eskolaren 50. urtemuga festa.

zer lan sektore dauden, ikasleari bere gaitasunak lantzeko aukera ematen die. Era berean, aitzindari izan da beste proiektu batzuetan ere. Atzerriko eskoletatik interesa egoten da eskolara bertaratu eta bertatik ezagutzeko hezkuntza metodologia, proiektuak. Energia berriztagarrietan, adibidez, une honetan Herbehereetatik etorritako 15 ikasle ditugu. Praktikak egiten ari dira. Hango eskola bateko modulu ofizial baten parte bat dagoeneko eskola honetan garatzen da. Jada, pisu eta garrantzia handia hartzen duten proiektuak dira. Azken datuen arabera, Lanbide Heziketako ikasleen %90a ateratzen da lanpostu batekin.

**Zer ibilbide egin nahi zenuke Aitor?**

**A.Z.:** Beste ikasturte bat dut aurretik. Gero goi mailako

**"500 IKASLE MUGITZEN DIRA ZIKLOETAN ETA IA 500 ARRATSALDEETAKO IKASTAROETAN"**

zikloa egin beharko dut. Beti ari gara gauza berriak ikasten, ez gara aspertzen, praktikoa da eta horrek bizitasun puntu hori ematen die ikasketei. Niretzako aukera hobereena da Lanbide Heziketa.

**J.A.A.:** Ofizio bat ikasi nahi duenak, eskaintza zabala du Zubietan.

**Jaialdirako gonbitarik egin nahi duzue?**

**J.A.A.:** Herritarrek gonbidatzen ditugu 50. urtemuga jaialdira. Baliatu unea, eskola barrutik ezagutzeko eta festara ere animatu!

**A.B.:** Egun, eskolako egunerokotasuna osatzen dugunak gonbidatu nahi genituzke, baina baita ere eskolatik pasatu diren ikasle, irakasle, langile, horiek guztiak etor daitezela. Elkar berriro topo egiteko gune bat izan dadila, ikus dezaten nola aldatu den

**"BERRIRO TOPO EGITEKO GUNEA IZAN DADILA, IKUS DEZATEN NOLA ALDATU DEN ESKOLA"**

eskola, baina baita ere, orain hemen gaudenok ikusi eta entzun dezagun haien ahotik nola zen eskola, zer ikasi zuten. **A.Z.:** Gazteok eta ikaskideok animatu Zubietara! Ondo pasako dugu denon artean.

**Zubietako Lanbide Eskolak 50 urte**

**Maiatzak 30, larunbata 10:00etan hasita,** Lanbide Eskolan: ginkana Zubietako eskolarentzat, helduxeagoentzat herri kirol lasaiak, zikloetako proiektuen aurkezpena... **12:00** 50. urtemugako bideo proiektzioa ikastetxeko areto nagusian. Segidan, musikaz girotuta frontoira. **14:30** Bazkaria Zubietako frontoian: -Menua: sarrerakoak, paella mistoa edo begetala eta postrea eta kafea. -Txartelak salgai Zubietako Lanbide Eskolan bertan eta Almandegi, Usurbilgo Bordatxo eta Lasarteko Ilargi tabernetan, 25 euroren truke langileentzat, 20 eurotan langabeentzat. **18:00** Kita del Pare txaranga. **20:00** Txilipipar. **22:30** Dj Zzero. **Oharra:** txosna egongo da. **Antolatzaileak:** Zubietako Lanbide Eskola, Zubietako Herri Batzarra eta Jai Batzordea.



Zubiaurrenea kalea 3an zabaldu behar duen egoitza "pertsona ororentzat irekita" egongo dela azaldu digu.

# "Nire helburua da ariketa fisikoa eguneroko martxan txertatzea"

**AGURTZANE ALKORTA** ARIKETA FISIKO GIDATUETAKO IRAKASLEA

'Agu, pilates eta ariketa fisikoa' egoitzaren ateak ekainaren 1ean irekiko ditu. Bere eskaintzaren berri emateko, ate irekiak iragarri ditu maiatzaren 28 eta 29rako.

**ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO**  
**Zergatik da garrantzitsua ariketa fisikoa egitea?**

Nire helburua ariketa fisikoa gure bizi ohituretan txertatzea da. Eguneroko bizitzari lanorduetan aurre egiteko eta lanorduetatik kanpora osasuntsu sentitzeko bai mentalki baita fisikoki ere. Belauneko edo aldakako lesio asko ikusten dira, eta nik uste erreminta garrantzitsua dela prebentziorako.

**Zer eskainiko duzu Agun?**

Lana talde txikietan egingo dugu. 15-20 pertsonako taldeekin aritu izan naiz eta jarduera batzuetarako zoragarria den arren, egia da pertsonen beharretara iristeko zailagoa

dela. Pilates ikastaroak, entrenamendu funtzionalak eta ariketa hipopresiboak eskainiko ditut. Helburua hasieratik lana kontzienteki egitea izango da etortzen den pertsona ororen gorputza ezagutzeko, lantzeko eta indartzeko.

**"PILATES, ENTRENAMENDU FUNTZIONALAK ETA ARIKETA HIPOPRESIBOAK ESKAINIKO DITUT"**

**Nori bideratuta daude?**

Pertsona ororentzat irekita egongo da. Nire azken formakuntza izan zen emakumearen fisiologia errespetatuz nola entrenatu behar den hilekoa jaisten zaigunetik aurrera.

**"PAZIENTE ONKOLOGIKOekin EGIN DUT LAN, ETA HAIENTZAT ERE LEKU GOXO BAT IZATEA NAHI DUT"**

**Zergatik erabaki duzu zabaltzea?**

2005ean hasi nintzen mundu honetan, 2019an zentro txikia-goetara aldatu nintzen. Beti formatzen aritu naiz eta beti herritik kanpo egin dut lan. Ingurukoek Usurbilen horrelako zerbait falta zela esaten zidaten. Bizitzako une batean geldiene bat egin nuen, eta emakumeak entrenatzeko formatu nintzen. Momentu horretan, herrian bertan lan egiteko ideiarekin hasi nintzen. Hainbeste urtetako lan eta esperientziaren ondoren, hemen hasteko unea iritsi da.

**Emakumeen entrenamenduaz aritu zara, nabaritzen da emakume batek hilekoa duenean?**

Bai. Gure gazteak hezi behar dira hilekoa jaisten zaigunean, ez dela bakarrik zikintzen dugula eta ea hurrengoa noiz datorren. Zikintzen dugunetik hurrengoa etorri arte gure hormonak errusiar mendi bat dira. Gainera, gure bizitzan garrantzitsuak diren alterazio hormonalak dira. Orduan, aldaketa horiek ulertzea da kontua. Nik formakuntzan eskainiko diedana hauxe da: hilekoaren fase bakoitzean nola entrenatu, intentsitatea, indarra eta mugikortasuna,... Gero egia da emakume bakoitzak mundu bat dela, eta horregatik talde txikietan lan egitearen garrantzia, bakoitzaren beharretara iristeko, norberak ezagutza hori edukitzeko. Hori dena azaldu egin behar zaie. Izan ere, emakumeok askotan ez dakigu zer dugun, eta aurrera jarraitu dugu, baina azalpenak daukela esan behar zaie.

**Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Azkeneko urteetan, paziente onkologikoekin egin dut lan, batez ere bularreko minbizia zutenekin, eta haientzat ere leku goxo bat izatea nahi dut. Tratatu edo ez tratatu, erabil-tzaile horientzako, talde txikietan, aukera hori ere izango dute momentu horretan behar duenera egokituz.



43. Sagardo Egunean auzolanean aritutako herritarak. Haiek gabe, ez da festarik.

# Sagardo Eguna, herri-lan handiaren emaitza

43. Sagardo Eguna ere, boluntario sare zabal bati esker ospatu ahal izan zen maiatzaren 24an. Herritar andana aritu zen antolaketa lanetan. Festa eta auzolana fin asko uztartu zituzten irudiko herritarrek, aspaldiko jaialdi udatiarrean.

## ARITZ LASARTE

Haiek gabe ez da festarik izaten. Usurbildarren urteko jaiegun seinalatuena 43. ediziora heltzearen erantzuleak dira denak; urtez urte, Sagardo Egunaren antolaketa lanetan nahiz jaialdi egunean

bertan boluntario gisa jarduten direnak. Hilaren 24ko jaialdia abiatu aurretik, argazkirako bildu ziren Dema plazan. Berotzarekin plazaratu ziren lanean jardundakoak, gainerako herrikide eta bisitariekin batera. Goizean goiz

hasi zuten auzolana, jaiguneko elementuen muntaketa lanean. 11:30etako hasiera ekitaldiaren ondotik, segi zuten lanean. Etxean eginiko sagardoa dastatu ahal izan zen haien eskutik, baita Aginagako, Usurbilgo eta Zubietako

sagardotegietakoak ere, nahiz eskualdeko edota Gipuzkoako beste zenbait udalerrietako edariak ere bai.

## Itzal bila

Azken urteotako edizio udatiarrean, eguzki izpietatik babesteko neurri guztiak ez ziren aski izan. Nabaria izan zen, itzalpean ziren eremuetan nola pilatu den jendea. Denak sagardo eta festa egarriz murgildu ziren Sagardo Egunean.

**"EGUZKI-IZPIETATIK BABESTEKO NEURRI GUZTIAK EZ ZIREN ASKI IZAN"**

## "Gora Usurbil! Gora Sagardo Eguna!"

Sagardo Eguneko irekiera ekitaldian, Saizar sagardotegia eta Usurbil Futbol Taldea omendu zituzten. Biekalabiek, 50 urte bete dituzte aurten.

Saizarren izenean, Esteban Lertxundi igo zen oholza gainera. Ainhoa Azkue eta Miguel Uribe berriz, Usurbil FT taldea ordezkatu zuten. Antolatzailuek zapi bana jarri zieten eta omenduek lehen botilak

zabaldutuztenez, orduantxe abiatu zen ofizialki Usurbilgo egunik handiena.

Esteban Lertxundik eskerrak eman zituen, aita zenak Sagardo Egunarekiko agertu zuen konpromisoa nabarmentzeagatik. Usurbil FTko Ainhoa Azkue eskerrak eman zizkien denei eta "Gora Usurbil! Gora Sagardo Eguna" oihuarekin amaitu zen irekiera ekitaldia.



Usurbil Futbol Taldea eta Saizar sagardotegia omendu dituzte aurtengoan.



Lehiaketako hiru partehartzaileak: Jon Guadix, Julen Lertxundi eta Olatz Arca.



Nagore Lertxundik irabazi zuen iazkoan. Aurten anaiak, Julenek jantzi du txapela.

# Julen Lertxundik jantzi zuen sagardo botatzaileen txapela

Julen Lertxundi nagusitu zen sagardo botatzaileen arteko lehiaketan. Jon Guadix bigarren izan zen eta Olatz Arca hirugarren.

## IMANOL UBEDA

Irekiera ekitaldiarekin batera hasi ohi da sagardo botatzaileen lana. Tragoak banatzen ari diren bitartean, antolatzaileak postuz postu ibili ohi dira eta denen artean hiru botatzaile hautatzen dituzte. Aurtengoan, hiru

hauek gonbidatu zituzten oholtza gainean jokaturiko lehiaketara: Julen Lertxundi, Jon Guadix eta Olatz Arca.

Lehen, lehiakide bakoitzak hiru trago zerbitzatu behar zituen. Azkenaldian ordea, baso bakarra bete behar dute. Horrek asko zailtzen du ari-

keta. Kolpe bakarra dutenez, lehenengoan asmatu behar dute. Ez dago bigarren tiraldi baterako aukerarik.

Eguerdiko 13:30ean hasi zen lehiaketa. Aurkezleak hiru izenak iragarri zituenean, jendea oholtza ingurura hurbiltzen hasitzen. Jendearen erreakzioak

azken erabakian eragin ote zuen ez dakigu, baina hiru botatzaileen lana goraipatua izan bazen ere, txalo eta animo gehien batu zituen botaldia Julen Lertxundirena izan zen. Txapeldunarena, alegia.

Irabazleak txapela, sagardo kutxa eta gazta etxeratu zituen.

Jon Guadixek sagardoa eta gazta, eta Olatz Arcak sagardo kutxa. Lehiaketa bukatu zenean, bakoitza bere postura itzuli zen, goiz partean hasitako lana amaitzera.

**"KOLPE BAKARRA DUTENEZ, LEHENENGOAN ASMATU BEHAR DUTE"**

## Talogileak jo eta su lanean

Ernai gazte antolakundearen Mikel Laboa plazako karpagunean aritu ziren auzolanean herriko talogileak 43. Sagardo Egunez, goizean goizetik. Jaialdia ofizialki hasterako sukaldatzen hasiak ziren lehen taloak; hamaiketako garaia poztu zioten askori. Gune berean, postua jarri zuen Usurbil 1936 memoria historikoaren elkarteak. Mariskada eder baten zozketa egin zuten; 0844 izan zen zenbaki saritua.



Usurbilgo talogileen taldea 43. Sagardo Egunean, Ernai gazte antolakundearen karpagunean.



Lagunarte giro ederrean aritu ziren sagardoa zerbitzatzen.



Dema plazako itzalgune bakarra, sagardo botilek eragindakoa baino ez zen.



Sagardoa zintzurretik behera bultzatzeko ezinbesteko geltokia, pintxoena.




Eguzkia aurrez aurre zutela, sagardoa gogotsu zerbitzatzen.



Belgikako bisitariak, sagardoaren kulturari eskainitako tatuajearekin.



Aginagako Urdairakoak etxeko edaria zerbitzatzen.



Santueneako Aialde Berri sagardotegikoak etxeko sagardoa zerbitzatzen.



Mundu bat sagardo egarritz, maiatzaren 24ko jaialdian.

## SAGARDO EGUNA, IRUDITAN



Mikel Laboa plaza zeharkatu zuen, edalontzia eskuratzeko ilarak.



Frontoiko eta Askatasuna plazako itzalguneeetan pilatu zen jende gehien.



la berrogei sagardo postuetan aritu ziren herrikideak auzolanean.



Jaialdian murgildu eta sagardoarekin topa egin zuen lagun kuadrilletako bat.



Zumarteko trikitilari eta panderojole taldeak musikatu zuen jaialdia.



Gehien errepikaturiko keinua hilaren 24an; besoa altxata sagardoa botatzen.



Herrian lagun-taldean eginiko sagardoa ere dastatzeko modua izan zen.



Hamaiketako garaia sagardoa zerbitzatzen igaro zuten.

# Txirikordaren bi urteak komunitatean ospatu dituzte

Belaunaldiarteko topaketa sustatu zuen Txirikordak komunitatean ospaturiko bigarren urtemugako jaialdiak.

Belaunaldiarteko bizitza komunitarioari gorazarre egin zioten maiatzaren 16an Txirikordak bete eta hango bizilagunek antolaturiko bigarren urtemuga jaialdian. "Elkartuz komunitatea sortzen" aldarripean, denontzako ekintzekin osaturiko jaialdian zehar, bizilagunok nabarmendu zuten, urteotan ereindako lurra "badabil jada bere uzta ematen". Izan ere, "familia berri bat osatu dugu", herrigintzan diharduena. Eskertza eta egniko bidearen aitortza plaza-

ratu zuten. Honaino heltzeko Udalak eta Txirikordako komunitateak elkarrekin "egin behar izan dugun sormen lan izugarria" nabarmendu zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak. Jarrera indibidualistak nagusi diren garaiotan, "laborategi sozial" gisa definitutako proiektu hau bezalakoxeen garrantzia azpimarratu zuen, Txirikordari aniztasuna dariola gogorazita; adin, jatorri, kultura edota hizkuntza aniztasuna. Horregatik guztiagatik, "segi



Txirikordaren atarian bildu ziren, urtemuga festarekin bat egindakoak.

eredu izaten", esanez zoriondu zuen Txirikordako komunitatea. Ospakizunak askotariko osagaiak izan zituen; gaztetxoentzako sokatira txapelketa, lasterketa biziak eragindako buruhandien itzuleta edota txokolate jan gozoa. Helduagoentzako toka lehiketa antolatu zuten. The Hastelen's herriko taldeak musikatzen zuten urtemuga festa,

abestietako batean, talde kide izandako Jon Azpiauren parte hartzearekin.

**"URTEOTAN EREINDAKO LURRA BADABIL JADA BERE UZTA EMATEN"**



Txokolate gozo askoa prestatu eta zerbitzatu zuten bizilagunek.



Aitortzarako eta eskertzarako tartea hartu zuten, urtemuga festan zehar.



The Hastelen's taldekoek emanaldi ederra eskaini zuten.



Gaztetxoenen artean eginiko sokatira txapelketa.



Txirikordaren bi urteak ospatzeko, maiatzaren 16an eginiko bigarren urtemuga festako irudia.

# "Bizimodu honek forma hartua du eta oso pozik gaude denok"

**LEIRE ARREGI IRURETA** TXIRIKORDA

Bi urte bete ditu Txirikordak eta herriarekin batera, jendartean urtemuga ospatu berri du, Ugartondon kokaturiko belaualdiarteko etxebizitza komunitarioak. Bizilagunetako batekin izan da hedabide hau.

**ARITZ LASARTE**

Bi urteotako bizitza komunitarioaren eraikuntza lanaz nahiz aurrera begirakoez mintzatu zaigu Txirikordako bizilagun Leire Arregi Irureta.

**Bi urte bete ditu Txirikordak. Zuen ustez zer duzue ospatzeko?**

**Leire Arregi Irureta:** Bereziki, urteotan eraikitako bizitza komunitarioa. Bizimoduhonek forma hartua du eta oso pozik gaude denok. Bizitza komunitario sendoa izatea lortu dugula uste dut.

**Nola joan da forma hartzen?**

Lan handia egin da. Hasieran, gogoan dugu, nola dena zen teoria. Bizitza komunitarioak

zer behar zuen lantzen aritu ginen. Bide horretan, taldeetan egituratu ginen eta hala, komunikazioaz arduratzen denik badugu, edozer gertatuta ere udaletxearekin bilduko dena, soziedadearen arduraduna, garbiketena... Esperimentatzen hasi ginen, zerk funtziona zezakeen eta zerk ez ikusteko, hobetu beharrekoak hobetzen. Egun ikusten

**"HORI DUGU OSPATZEKO, DENOK DUGU BARNERATUA BIZITZA KOMUNITARIOA"**

duguna da, oso ondo ari dela funtzionatzen, denok gaude-la barruan eta hori da ospatzeko dagoena.

**Aurrekaririk gabeko esperientzia izanik, hasieran bazenuten kezka funtziona zezakeen edo ez?**

Bidelaguntza izan genuen hasieratik, pixkanaka askatzen joan gara. Hasierako bidelaguntza desagertzerakoan,

**"ERALDATZEN JOAN DA BELAUNALDIARTEKO HARTUEMANA TXIRIKORDAN"**

bazen beldurra ea nola moldatuko ginen. Baina esperimentatzen joan ahala, jada orain denok ardurak hartuak ditugu, parekatsu gaude horretan eta aipatu moduan, hori dugu ospatzeko, denok dugula barneratua bizitza komunitarioa. Denok dugu barneratua zer egin, zer ez, jendearekin bizi garela.

**65 urtetik gorako helduak eta 18-30 urte arteko gazteak bizi zarete Txirikordan. Nola jorratu eta eraldatu da belaualdiarteko hartuemana?**

Gai horretan ere esperimentatzen joan gara. Eraldatzen joan da hartueman hori. Bakoitzak funtzio ezberdinak ditu. Bi urteotan egin duguna da ikusi eta jaso zeintzuk ziren helduen kezak. Denok bizitza komunitario honen barne sentitzeko hainbat ekintza egin ditugu. Adibidez, Txirikordako kideetako bat sukaldaria da eta sukaldaritzari lotutako saio bat egin genuen larunbat batean. Gero, denok batera afaldu genuen. Hortik haratago, norbere etxean baina elkarrekin bizi gara. Belaualdiartekotasunarekin batera, hizkuntzak aipatu behar dira.

**Nolakoa izan da hizkuntzen kudeaketa?**

Hori ere denak zoriontzeko motibo bat da. Euskaraz, gaztelaniaz eta ukraineraz hitz egiten duten bizilagunak ditugu Txirikordan. Denok saiatzen gara, batetik, whatsappetik hiru hizkuntzetan komunikatzen. Asanbladetan xuxurlariak daude. Pertsona batek kudeatzen du asanblada bakoitza, aktalaria eta xuxurlaria egoten dira bertan. Aplikazio bidez, erdaraz nahiz ukraineraz itzultzen zaizkie saio horietan euskaraz esandakoak. Ukrainar bikote heldu bat dago. Alaba etorri izan da haiei laguntzera asanbladetan. Iritsi da unea, bere gurasoak bakarrik egon daitezkeena. Ukrainatik etorrita haiek zer

pozik dauden eta eskerrak ematen ikustea zoragarria da.

### Hizkuntzez gain, jatorri aniztasuna dago Txirikordako bizilagunen artean?

Ukraina, Euskal Herria, Kuba. Hor ere aniztasun handia dago kulturalki, oso onuragarria da. Bakoitzak bere ekarpena egiten du. Kubako Ofeliak adibidez, alaitasun eta poztasuna ematen du. Horri lotuta, azken hiruhilabeteko urtebetetzeak ospatuko ditugu ekainean.

### Ardurei buruz mintzatu zara lehen. Nola duzue egituratua bizitza komunitarioa?

Adibide moduan, garbiketa aipatu dezakegu. Hilero solairuka eraikin osoa garbitzen da. Batzuetan tokatzen da beheko solairua garbitzea. Binaka egiten da. Idatzi egiten da noiz eta nola egin. Urtean behin, ekainean eraikin osoa garbitzen dugu denok batera. Taldeka antolatzen gara. Adibide gehiago; ekainean pare bat afari izango ditugu. Solairu bakoitzean adin tarte ezberdinetako bizilagunak daude. Solairu bakoitzak afari bat sukaldatu behar du. Bestalde, soziedadea ere elkarrekin margotu genuen. Bertan dugu banku ordua, bizilagun bakoitzak komunitateari eskaintzen dion ordu kopurua zehazten du. Bakoitzak, hilero, gutxienez zortzi ordu eskaini behar dizkio komunitateari. Gai horri lotuta, ikusten genuen nork bere izena zehaztea oso bortitza izan zitekeela. Horregatik, ekintza baten bidez, bakoitzak molde batekin figura bat sortu zuen.

### Bi belaunaldi elkarbizi zarete. Nolakoa izan da batzuen zein besteen behar, desio edota erronken jorketa?

Helduen kezka nagusietakoa izaten da, gazteoi energia askorekin ikusten gaituztela. Haiei ere energia ematen diegula ikusten dute, gustura daudela, baina batzuetan diote, guk gehiago egiten du-



"Txirikorda, elkartzu komunitatea sortzen" zioen, bigarren urtemuga festako aldarriak.

gula haiek baino. Askotan, ordea, ez dira jabetzen zer lan egiten duten. Adibidez, haiek etxean gehiago egoten dira egunean zehar. Etxean gertatzen dena jakinarazten dute, une horietan bizitza komunitarioa haiek kudeatzen dute.

### Bi urte igaro dira soilik. Agian, goizegi izan daiteke honi buruz hizketan hasteko. Gazteok, gehienez, 30 urte bete arte edo bost urte egongo zarete Txirikordan bizitzen. 65 urtetik gorakoen artean, epealdi hori ez da hain zehatza. Txirikordan bizitako esperientzia osteko garaiari buruz mintzatu zarete?

Asanbladetan ez da atera gaia oraingoz. Kide batzuen artean, horri buruz hitz egiten da halere. Azkenean, konfiantza eraiki da bizilagun guztion artean. Guk utzi egin beharko dugu Txirikorda epealdia amaitzean, helduek hemen jarraitzeko aukera izan dezakete. Aldez aurretik, datozenentza-

**"HEMEN, IKUSPEGIA ZABALDU ETA ESPERIENTZIAK ABERASTEN DIZU"**

ko ahal dena ondo uzten saiatu beharko genuke.

### Zer beharko lukete argi izan, Txirikordan bizitzera joan nahi luketenen?

Jakin behar dute zer den bizitza komunitarioa, jendearekin bizitzea. Hemen, bakoitzak bere tokia du, bere bizileku propioa. Baina gero, jendearekin bizi zara, komunitatean. Orduan, besteak errespetatu behar dira, ezin dira gauzak norbere erara egin. Elkarbizitzaez ari gara, laguntzeko prest egon behar duzu, asanbladetan parte hartzea ezinbestekoa da. Harremantze bat ematen da. Hori da oinarria. Egia da, hasieran arraro senti zaitezke pixka bat. Ulergarria da, bizitzeko beste sistema eta modu batetik gatoz.

### Halere, bi urteotako esperientziak erakutsi du, halako bizitza komunitario bat eraikitzea posible dela?

**"BARRUAN SENDO GAUDE. HERRIRA BEGIRA, EKINTZA GEHIAGO EGITEA DA ASMOA"**

Horretarako bide bat egin behar da, baina bai, egingarria da. Lanketa bide horretan, inkontzienteki, pixkanaka aldatzen zoaz.

### Zertan aberastu zaituzte esperientzia honek?

Inflexio puntua izan da. Ikuspegia irekitzen laguntzen du. Azkenean, egunerokotasunean zurean zaude eta ez duzu beste ezer ikusten. Hemen, ikuspegia zabaltzen duzu eta esperientziak aberasten dizu.

### Zer gehiago du egiteke Txirikordak?

Txirikordan, barrura begira sendo gaude. Herrira begira, ekintza gehiago egitea da asmoa. Ikusi duguna da, jendeak ez dakiela Txirikordak behean espazioa duela herritarrentzat. Erabiltzeko dago. Herritarrak gonbidatzen ditugu espazio hori erabiltzera. Eskaerak ere jaso izan ditugu, ea hemen, soziedadeko sukaldean ikastarorik egin daitekeen. Berriki egin zuten bat eta berriro egin nahi dute. Bestalde, 650 Usurbil Bizi turismo proiektuko bisita gidatua aspalditik dugu egiteke. Denon artean egiteko ekintza bat izango da. Laster, asanbladan jarriko dugu horretarako data.



Maiatzaren 23an Foru Aldundiaren egoitza atarian egindako mobilizazioa.



Ekainaren 1ean biltzekoak dira Foru Aldundiko ordezkariekin.

## Mezu eta manifestarien katea, erraustegia geratzeko

Erraustegiak kutsatzen segitzen duela salatu eta Donostia Zubietako planta gehien elikatzen duen udalerrria dela ohartarazteko Errausketaren Aurka-

ko Mugimenduak mobilizazioa egin zuen hilaren 23an, Foru Aldundiaren egoitza atarian. Erraustegia gelditzea galdegin zieten Gipuzkoako agintariei.

## Hirugarren asteartez greban eta Foru Aldundiaren atarian protestan

Lantokiari lotutako lan-baldintza zehatz eta duinak jasoko dituen lan-hitzarmenaren aldeko borrokan dihardute erraustegiko langileek. Urte

hasieran abiaturiko mobilizazioen baitan, hirugarren asteartez greba eguna izan zuten hilaren 26a eta Foru Aldundiaren atarian mobilizatu ziren.



Kotxe karabanan irten aurretik, Udarregiko langileek ateratako talde argazkia.



Herrietan mobilizazio gehiago antolatzekotan dira.

## Ordubeteko lanuztea egin zuten Udarregi ikastolako langileek

Azaroan itxialdia egin ostean, ordubeteko lanuztea egin zuten hilaren 21ean Udarregiko langileek EAE-ko gainerako ikastolen antzera, Eusko Jaur-

laritzaren Hezkuntza Sailari 2023ko lan-hitzarmeneko konpromisoak betearaztea galdegiteko. Kotxe karabana egin zuten herrian barrena.

## "Ez dugu onartuko osasun publikoaren narriadura planifikatua"

Hala adierazi zuten, hilaren 25ean Eusko Jaurlaritzaren Donostiako ordezkari zaren Donostialdeko Osasun Publikoa-

ren Alde diharduten herri plataformek. ESIren kudeatzailearekin biltzea eskatu arren, oraindik erantzunik ez dutela jaso jakinarazi zuten.

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berritzeak  
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
 · Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**  
[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

**Uraitz, s.l.**  
 Igeltseritza Orokorra  
**693 059 392**  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) USURBIL

**ZENDOIA ENEA** taberna  
 Kale Nagusia 35, Usurbil



Pediatría zerbitzuarekiko kezka ez da berria. Irudian, izako irailen udaletxe aurrean eginiko agerraldia.

# "Konponbiderik gabe jarraitzen dugu"

Hedabide honetara oharra bidali digu berriz, pediatría zerbitzu ez duinagatik, azken urtebetean mobilizatzen aritutako Usurbilgo guraso taldeak.

## ARITZ LASARTE

Izan ere, gogoan izango duzue, iaztik hasita, bost bat hilabeteetan pediatarik gabe izan zela herriko osasun-etxea. Bizitzen ari ziren egoera plazaratzearekin batera, iraila amaieran mozioa erregistratu zuten udaletxean eta hilabete amaiera hartako osoko bilkuran aurkeztu zuten, gerora, udalbatzak onarturikoa.

Aurten, urte hasieran ere, urtarrilaren 12az geroztik, zerbitzu hau etenda izan zen. Egiturazkoa den plaza hori berehala betetzeko erreklamazio bateratua aurkeztu zioten Osakidetxari Usurbilgo hainbat familia eta herrikideek.

Eskaera harekin bat egin zuen baita Usurbilgo Udalak ere. Egoera horren ondorioez ohartarazi zuten: "diagnostiko eta tratamenduetan atzerapenak, prebentzio-kontrolen murrizketa, Lasarteko osasun zentroaren gainkarga eta, batez ere, familien eguneroko bizitzan eta kontziliazioan eragin zuzena".

## "Itxurazko irtenbidea"

Horraino, laburbilduz, gai honi buruz azkenekoz jasotako informazioa. Maiatzaren 21ean, herri honek pediatría zerbitzu duina izan dezan borrokatzen ari den guraso taldetik ohar bidez hedabide honi jakina-

razi diotenez, urte hasierako azken etenaldi haren ostean, "azken hilabeteetan pediatría kontsulta formalki "berrezarri" da, baina berrezarri hitza karkotsen artean jarri beharrekoa dela nabarmendu digute. Izan ere, "ordu murriztuan, egonkortasunik gabe eta jarraikortasunik bermatu gabe eskaintzen da, eta horrek soilik itxurazko irtenbidea ekarri du".

Ondorioz, ohar horretan bertan jakinarazi dutenez, "duela hilabete batzuk Usurbilgo Osasun Zentroko pediatría zerbitzuaren egoeraren inguruan egindako salaketaren ondoren, berriz ere publikoki salatu nahi dugu egoerak ez duela hobera

egin eta onartezina izaten jarraitzen duela".

Eguno egoerari dagokionean zehaztu dutenez, "gaur egun eskaintzen den zerbitzua ez da nahikoa, ez da egonkorra eta ez du bermatzen gure seme-alabek behar duten arreta egokia".

Gogora ekarri dutenez, egun pediatría zerbitzuak Usurbilen bizi duen egoera ez da une zehatz bati lotutakoa, "baizik eta uzte sistematiko baten ondorioz sortutako egoera larri baten aurrean" gaudela salatu dute.

## "Egoera hau berehala zuzentzea eskatzen dugu"

Horregatik, "onartezintzat jo dute "osasuna "erdizka" eskaintzea, eta bereziki haurren kasuan, arduragabea da halako zerbitzu prekario bat mantentzea. Gaur egungo egoerak ez ditu inolaz ere betetzen osasun publikoaren oinarriko printzipioak: unibertsaltasuna, hurbiltasuna eta kalitatea". Horren harira, hiru eskaera plazaratu nahi izan dituzte hedabide honetara helarazitako ohar bidez. Batetik, "Usurbilgo Osasun Zentroan pediatría zerbitzu osoa, egonkorra eta kalitatezkoa berehala bermatzea" galdegin dute; bigarrenik, "orain arte hartutako erabakien inguruko azalpen argi, zehatz eta gardena ematea" eskatu dute; eta, hirugarrenik, "egoera honen atzean dauden arduradunek erantzukizunak hartzea".

## "EGUNGO EGOERAK EZ DITU OSASUN PUBLIKOAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK BETETZEN"

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42

**txirriStra**  
TABERNA  
·PLATER KONBINATUAK  
·BOKATAK ·PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Maiatzaren 22an, Donostiako Cesar Benito zelaian lortu zuen Usurbil FTko taldeak ohorezko mailara igotzeko txartela.

## Ohorezko mailara igo dira

Ospakizunetarako motiboak pilatzen ari zaizkio Usurbil FTri. Azken berri pozgarria, maiatzaren 22an jaso zuten, senior emakumezkoaren taldearen eskutik, ohorezko mailara igotzea eskuratu zuten eta.

Donostiako Cesar Benito zelaian izan zen, Intxaurdi K.E. "B" taldekoekin izandako neurketan. "Talde baten nortasuna, herri baten harrotasuna! Aupa nexkak, igoera zuena da!!!", adierazi zien

Usurbil F.T.-kaipatu taldeko kideei.

**"TALDE BATEN NORTASUNA. HERRI BATEN HARROTASUNA. AUPA NEXKAK! IGOERA ZUENA DA"**

USURBIL FT



Jokalariek oroigarri bana jaso zuten.

## Bost jokalarik erretiroa hartu dute Usurbil FT taldean

Larunbatean jolastu zuten Haranen azkeneko partida Ibai Markosek, Jon Mikel Azpiatzuk, Xabi Ugaldek, Aitor Niñok eta Aimar Galanek. Markosek, Azpiatzuk eta Ugaldek urte asko jolastu dituzte futboleant, eta ondorioz, erretiroa hartzea erabaki dute. Niñok futbola alde batera uztea erabaki du zestean jolastentzen hasiko delako Zubietan, eta Galanek belauneko lesio bat izan zuten eta guztiz ondo ez duenez futbola uztea erabaki du.

Zoritzarrez, partida 0-1 galdu egin zuten Allerru KE-ren aurka, eta ez zuten lortu garaipen batekin agur esatea haien futbol ibilbideari.

## Boleibol, ate irekiak

Benjaminen (2017-2018 urteetan jaiotakoak) eta alebinen (2015-2016) maiatzaren 29an 16:30-17:30 boleibola probatzeko aukera izango dute Oiardon. Infantilek (2013-2014), aldiz, ekainaren 5ean izango dute aukera, 16:30-17:30 bitartean Oiardon.

Ate-irekietarako izena eman behar da aurretik: [labur.eus/cm77ar4s](http://labur.eus/cm77ar4s)

Adin handiagokoek boleibola probatu nahi badute, boleibola@gmail.com helbidera idatzi dezala edo harremanetan jarri 630 155 441 telefonoaren bidez.



Giroa pil-pilean izan zen harmailetan.

## Herriartekotik kanpo gelditu da Pagazpe pilota elkarteak

**ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO** Usurbilen jokaturako hiru partidetatik bi irabazi arren, txapelketatik kanpo gelditu zen Usurbil. Azken partidak zeresana eman zuten.

Izan ere, seniorretan, Eibarreko taldeak 10 tanto besterik ez zituen egin behar kanporaketa irabazteko. 10. tantoa egin ondoren, aurrelari eibartarrari zuen jarrera egotzi

zioten harmailetatik, jokatze-ri utzi ziola leporatzen zioten.

Partida 22-11 amaitu zen, baina jardunaldia ez zen hor bukatu. Azkeneko tantoaren ondoren, zaletu asko gerturatu ziren kanpoko jokalariekin eta entrenatzailearekin hitz egitera. Zaletu batentzat "lotsagarria" izan zen eibartarren jarrera: "errespetu falta dela iruditu zait aurkarienganako, herriarenganako eta txapelketarenganako".

Kadete mailako usurbildarek garesti ordaindu zuten hasieran jasotako 0-16eko partziala, eta emaitza txukundu zuten arren, 7-22 izan zen partida Eibartarren alde.

Pagazpeko jubentilek, aldiz, 22-10 irabazi zuten euren norgehiagoka.

## Errifaren zenbaki saritua

Urdaiazpiko baten errifa egin zen eta zenbaki irabazlea 11559 izan zen. Saria jasotzeko Pagazpekin harremanetan jarri.

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

## EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

## GARAJEAK

## SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen

dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

## BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

## Udal dirulaguntza deialdien ebazpenak

Otsailaren 12an argitaraturiko udal dirulaguntza hainbaten behin-behineko ebazpenak kaleratu ditu Usurbilgo Udalak; hamaika dira guztira. Orotara, dirulaguntzetan 191.424,70 euro banatzea erabaki du udal Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak.

Beste datu bat; hamaika udal dirulaguntzotatik hiru deialdietara ez da eskabiderik aurkeztu; etxebizitzan

igogailua instalatzeko, desgaitasuna edota mendekotasuna duten adingabeen osasun egoera hobetzeko tratamenduentzako nahiz kirol egokituko jarduerak burutzeko dirulaguntzen deialdietara hain zuzen.

Ebazpen guztiok behin-behinekoak dira, ekainaren 4ra arteko epealdia izango dute interesdunek alegazioak aurkezteko.

## HILDAKOAK



**Lucia Lotepegi Artola**  
Maiatzaren 24an hil zen, 89 urterekin.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaituzte gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## II. Kultur Azoka ekainaren 7an ospatuko da

Kulturgunek 2022an antolatutako Kultur Azokaren bigarren edizioa antolatu du, egun, Kulturgunea, gazte mugimendurekin eta aisialdiko eragileekin batera bere baitan hartzen duen Arrobitxulok:

## Ekainak 7, igandea

- 12:00 Azokaren irekiera.
- 12:45 Moda desfilea.
- 13:30 Ekitaldia.



Egitaraua iragarri berri dute.

- 14:00 Itxiera.
- Azokan zehar, tailerrak, jolasak, tonbola, zozketak.

## Julen Lejardi eskubaloï kanpua, ekainaren 22tik 26ra

Julen Lejardi eskubaloï kanpua antolatu du Usurbil K.E.-k. Aurtengo edizioa ekainaren 22tik 26ra izango dela iragarri du Usurbil Kirol Elkartek, 09:30-12:30 artean. Lehen Hezkuntzako eta DBH 1-2 mailetakoei zuzendua egongo da. Izen-ematea zabalik dute esteka honetan: <https://forms.gle/gWvYsDbLQuSLLUhh9>

## Usurbil F.T.-n matrikulatzeko garaia

Usurbilgo futbol taldeen bilgunetik aditzera eman dutenez, hurrengo denboraldirako matrikulazio epealdia maiatzaren 31n itxiko dute.

Telematikoki bideratu beharko da izena, futbol taldeen bilguneak sare soziale-tan jarria duen lotura honen bidez: <https://labur.eus/ptlzy2ra>

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 29

### KALEZAR "Etika eta giza eskubideak pertsonen zaintzan" hitzaldi zikloak

Hizlaria: Miren Iturburu, Matia Institutua. Aurretik eman behar da izena. Informazio gehiagorako: 688 695 082. Antolatzailea: Matia Fundazioa.  
10:30-13:00 Egurtzezin.

### ZUBIETA Udaberri Festa Zubietan

Musika tresnen eskulanak eta "Oaintxe in deu" txaranga. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.  
16:45 Zubietako plazan.

### USURBIL Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuaren eskubideen aldeko mobilizazioa.  
20:00 Mikel Laboa plazan.

## LARUNBATA 30

### USURBIL Zubieta Lanbide Eskolak 50 urte

10:00 Ekintza ezberdinak.  
14:30 Bazkaria. Txartelak salgai Zubieta Lanbide Eskolan bertan eta Alamandegi, Usurbilgo Bordatxo eta Lasarteko Ilargi tabernetan.  
18:00 Kita del Pare txaranga.  
20:00 Txilipipar.  
22:30 Dj Zero.  
Oharra: txosna egongo da.  
Egun osoko jarduera.



Ostegun honetan, antzerkia eta herri krosa. Irudian, iazko dantza saioa.

## Zubietako Udaberri Festa abiatzera doa

Zubietako eskolako guraso elkarteak ikasturte amaierako ekimen zikloa iragarri du Zubietako plazan. Antzerkia, herri krosa eta musika, aste-buru honetako eskaintza:

### Maiatzak 28, osteguna

- 16:45 Antzerkia eta herri krosa.

### Maiatzak 29, ostirala

- 16:45 Musika tresnen eskulanak eta "Oaintxe in deu" txaranga.

### Ekainak 11, osteguna

- 16:45 Altxorraren bila ginkana eta apar festa.

### Ekainak 12, ostirala

- 16:45 Ekitaldiak:  
-Haurren funky eta antzerki emanaldia.  
-Ondoren, haur nahiz helduen pintxo eta tortilla lehiaketa.  
-Afalostean, Zubieta Talentu bila eta bingoa.

Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte.

### Lanbide Eskolaren 50. urteurrena

Zubieta Lanbide Eskolak mende Erdiko ibilbidea jaialdi batekin borobilduko du larunbat honetan, maiatzaren 30ean. Zubietako Herri Batzarrarekin eta Zubietako Jai Batzordearekin lankidetzan osaturiko egitaraua plaza-ratu dute. 10:00etatik hasita, hainbat ekitaldiren lekuko izango da Zubietako Lanbide Eskolan eta plazan.

## Bisita gidatuak

### Maiatzak 29, ostirala

- 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil.

### Ekainak 6, larunbata

- 11:00-12:45 Museo irekia eta Salbatore eliza bisita gidatua euskaraz.

### Informazioa, erreserbak:

650usurbilbizi.eus

## Udaberria liburutegian

### Maiatzak 30, larunbata

- 11:30 Ana Merinok bideraturiko idazketa tailerra (gaztelaniaz).

## "Jo!" antzezlanaren Zubietan

Ekainaren 6rako antolatatu du Zubieta Lan-tzen elkarteak antzezlan-19:00etan Zubietako elizan. Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabal antzezleek parte hartuko dute. Sarrerak aurrez eskura daitezke 5 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiarenean 6, Usurbil.

Zuen iragarkia hemen  
publizitatea@noaua.eus  
747-486-835

Okindegia-Gozotegia  
LABE-GOXO


**Antxi**  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)



ESKANERATU



**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!**

Egurrezko ontzietan  
ondutako sagardoen  
Euskal Herriko 7. Txapelketa

# EGURREZKO SAGARDOA

2026-06-14  
USURBIL

Aginagako Eliza Zaharrear

*Ekarri zure sagardoa eta parte hartu*

TXAPELKETERA AURKEZTEN DENAK DASTAKETAN PARTE HARTU BEHARKO DU

## SARIAK

Egurrezko Sagardoa

1. 1.000 euro "Herriko Etxea Saria"
2. 450 euro
3. 150 euro

SAGARDOGILE BAKOITZAK 8 SAGARDO BOTILA EKARRIKO  
DITU, DENAK KALITATE BEREKOAK.

BOTILAK EKAINAK 11RO 13:00AK BAINO LEHEN  
USURBILGO ALKARTASUNA BASERRITARREN  
KOOPERATIBAREN EGOITZAN ENTREGATUKO DIRA



**SARIA JASOTZEKO UNEAN ESKURATZEN DUEN SAGARDOGILEA BERTAN IZANGO DA, BESTELA HURRENGOARI  
EMANGO ZAIO**

\*info+: [sagardoa@ni.eus](mailto:sagardoa@ni.eus)

630938027

[www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus)

Antolatzaileak



Laguntzaileak

